

2016/09/27an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 27/09/2016.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela  
Maite Zubia Atxaga  
Maite Uribe Beristain  
Aitor Zubizarreta Alegria  
Aintzane Agiriano Errasti  
Edorta Barandiaran Garcia  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza  
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2016ko uztailaren 27an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Ezkurdia jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 27 de setiembre de 2016, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramón Zubizarreta Alegria , con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste el Sr. Ezkurdia.

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2016-07-26 eta 2016-09-02.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2016ko irailaren 22ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Ondoren, berariaz jakinarazi dira 10., 11., 12. eta 13. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko hartutako erabakiak.

## **3.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betetz, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2015eko bigarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

## **4.- IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK JARRITAKO ERAGOZPENAK 2016-KO BIGARREN HIRUHILEKOAN.**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzailtzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2016ko uztailaren 1etik 2016ko irailaren 30era arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

1.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako ERAGOZPEN-TXOSTENA (FAKTURAK FALTA DIRA, EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT).

(Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2016ko 3.a ).

2.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako ERAGOZPEN-TXOSTENA (FAKTURAK FALTA DIRA, EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT).

(Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2016ko 4.a ).

3.- Jabari publikoa okupatzeagatiko tasan Santa Ana 1 eta 2 eraikinetako etxebizitza eta lokal jabeei hobaria aitortzen dien 655. erabakiari egindako ERAGOZPEN TXOSTENA.

(emandako hobariak ez du arau babesik).

4.- Florentina Davila Cristina andreaki TMIZen hobaria aitortzen dion 657. erabakiari egindako ERAGOZPEN TXOSTENA.

(emandako hobariak ez du arau babesik).

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

## **5.- “BERTSO ESKOLA” ZERBITZUA ESLEITZEA.**

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari Eskoriatzako bertso eskola eskaintzeko zerbitzua adjudikatzea, honako baldintza hauetan:

- **Iraupena:** Zerbitzua 2016ko urria eta 2017ko ekaina bitartean eskainiko da.
- **Prezioa eta ordainketa epeak:** Zerbitzuaren prezio osoa 1.908,63 eurokoa izango da (BEZ salbuetsita) eta ordainketa epeak honako hauek izango dira: zerbitzuaren %33a

(hau da 630,00 €) 2016ko abenduan ordainduko da eta gainontzeko %67a (hau da, 1.278,63 €) 2017ko ekainean.

- **Txostenak:** Faktura bakoitzarekin batera, bertso eskolari buruzko balorazio txostena aurkeztu beharko da. Abenduan ikasturtearen hasierari buruzkoa, eta bertan zehaztuko dira eskola egutegia eta ordutegia, talde bakoitzeko kide kopurua eta ikasturtearen hasierako ebaluazioa. Ekainekoan, berriz, ikasturtearen balorazio orokorra aurkeztuko da, egindako ohiko eta ez ohiko jardueren berri emanez.

- **Baldintza teknikoak.**

Zerbitzua eskaintzeko kontratatuko diren pertsonak, bertso mundua ondo ezagutzen dutenak izan beharko dira eta bertso eskolak emateko behar besteko gaitasuna dutenak. Ahal den neurrian, gainera, Eskoriatzakoak edo ingurukoak izatea hobetsiko da.

Adinaren arabera bi bertso talde sortuko dira: bata helduena eta bestea gaztetxoena.

Taldeak, gutxienez, astero ordubetez elkartuko dira, lan-eskaintzan zehaztutako asteetan.

- **Lankidetzak:** Zerbitzua eskaintzeko Eskoriatzan bertsogintzaren inguruan dauden baliabideen laguntza erabiliko du Gipuzkoako Bertsozale Elkartek, kasu honetan Hankamotx bertso eskolarena, bera baita momentu honetan Eskoriatzan dagoen bertsogintzako talde bakarra.

**Bigarrena.-** Zerbitzu honen prezioa den 1.908,63 euroko gastua onartzea. Kopuru horretatik 630,00 euroko gastua aurtengo aurrekontuaren 0400.226.355.00.08 partidaren kontu onartzea eta gainontzekoa, hau da 1.278,63 € 2017. urteko aurrekontuaren kontu.

**Hirugarrena.-** Aurreko baldintzetan oinarrituta Eskoriatzako Udala eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen arteko kontratu administratiboa sinatzeko ahalmena alkateari ematea.

## **6.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturik egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**2016/09/27**  
**Osoko Bilkura**  
Pleno ordinario

**LEHENENGOA.-** Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

A. **Preskribatuta egoteagatik** kobratzeke dauden eskubideen baja: 220,96 €.

IZENA	KONTZEPTUA	URTEA	LIKIDAZIOA	GUZTIRA	ZERGATIA
BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA	PLUSBALIA	2012	29	220,96	PRESKRIPZIOA
<b>GUZTIRA</b>				<b>220,96</b>	

B. **Bidezkoak ez izateagatik** kobratzeke dauden eskubideen baja: 320,00 €.

URTEA	IZENA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	ZERGATIA
2.015	UTE ESKORIATZA SERVICIOS FORESTALES	Abenduko alkilerria	320,00	Kontabilitateko akatsa
		<b>GUZTIRA</b>	<b>320,00</b>	

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzailtza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoari beste arrazoiren batzuegatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

## **7.- “GAZTELEKU” ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA.**

Udalbatzarrak 2015eko irailaren 23an egindako bileran erabaki zuen NERABEENTZAKO BALIO ANITZEKO ZERBITZUA (GAZTELEKUA) KUDEATZEKO kontratua 42.000 €-tan (gehi BEZaren 0 €) esleitzea “TXATXILIPURDI” HAUR ETA GAZTE EKINTZAK-AED-ELKARTEARI. Kontratua baldintza administratibo partikularren agiriko gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen menpe egongo da. Kontratuaren hasierako iraupena urte betekoa zen.

Administrazio baldintza partikularren agiriko 2. baldintzaren arabera, epe hori beste bi alditan luza zitekeen urtebetez. Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikulua arabera.

Udalbatzarrak, 2015eko irailaren 22an, kontratua urtebetez luzatzea erabaki zuen.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak diktamena egin du, eta bertan esaten du onuragarri ikusten duela kontratua beste urtebetez luzatzea.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aipatutako artikulua arabera, kontratuaren luzapena kontratazio organoak erabakiko du, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Aurrez esandakoaren arabera, Kultura, Euskara eta Kirolak batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** NERABEENTZAKO BALIO ANITZEKO ZERBITZUA (GAZTELEKUA) KUDEATZEKO zerbitzua emateko kontratua URTEBETEZ luzatzea, baldintza agiriko bigarren baldintzan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Aurrez esandako luzapenari dagokion gastua baimentzea eta konprometitzea. Gastu hori 41.642,98 eurokoa da, eta udal aurrekontuko 0400.227.337.60.20 partidaren kargura egingo da.

## **8.- TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANORAKO PROPOSAMENA 2017. URTERAKO.**

2017rako 2016ko tarifekin jarraitzea proposatu du AGITAX elkarteak.

Proposamen hori egiteko emandako arrazoiak ikusita, eta Ogasun batzorde informatzailearen proposamenaren arabera, Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

**Lehenengoa.-** Udal honek onartutako azken tarifa mantentzea 2017. urtean.

## **9.- MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA ONARTZEA.**

Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzan MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA hasiera batean onartzea.

**Bigarrena.-** ARAUDI hori jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak jar diezaion. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, arau horiek behin betiko onartutzat joko dira erabaki berririk hartu behar gabe, horrela aurreikusten baitu apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.c) artikulua.

## **10.- GALDE-ESKEAK.**

Aitor Zubizarretak ondorengo galderak egin ditu:

1.- Igerilekuaren erabiltzaile kopurua uztailean eta abuztuan.

Esan du erabiltzaile kopurua jakin gura duela igerilekua egun eta ordu gehiagotan irekitzea errentagarria den edo ez baloratzeko.

Alkateak erantzun dio bidaliko diola informazio hori.

2.- Kirol zerbitzuen kontratazio arautzen duen baldintza agiriari dagokionez, zalantzan jarri du pertsona berak aldi berean eman ahal izatea sorosle zerbitzua eta ikastaro bateko begirale zerbitzua.

Idazkariak erantzun dio galdetuko diola kirol aholkulariari, eta erantzuna izandakoan zinegotzi guztiei jakinaraziko diela.

3.- Aipatutako baldintza agiriari buruz ere, galdetu du eranskinean jasotako ordutegia aldatu daitekeen. Esan du beharbada komenigarria izan daitekeela instalazioa 20:00etatik aurrera ere zabalik izatea langileek, esaterako merkataritzakoek, erabili ahal izan dezaten.

Erantzun zaio ordutegi hori aurreikuspen bat dela, komenigarritzat jotzen bada Udalak aldatu ahal izango duela bai luzatzeko bai murrizteko.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:55ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1.-APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en las siguientes fechas: 26/07/2016 y 02/09/2016.

## **2.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 22 de setiembre de 2016 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta de las Resoluciones aprobatorias de los expedientes de modificación de créditos N.º 10, N.º 11, N.º 12 y N.º 13.

## **3º.- INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO ( art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.)**

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el pago de las obligaciones adquiridas por este ayuntamiento correspondiente al segundo trimestre de 2016

El Pleno, con la asistencia de 10 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

## **4º.- REPAROS INTERPUESTOS POR SECRETARIA-INTEVENCIÓN DURANTE EL SEGUNDO TRIMESTRE DE 2016.**

Dado que por la Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento han sido efectuados una serie de Reparos de legalidad a Resoluciones y acuerdos adoptados por la Alcaldía desde el 1 de julio de 2016 al 30 de setiembre de 2016, de conformidad con lo dispuesto en el art. 218 del RDL 2/204 de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, se eleva informe al Pleno para dar cuenta de la Resoluciones adoptadas contrarias a dichos reparos.

A continuación se hace una reseña de las resoluciones y los reparos de los que ha tomado cuenta el Pleno:

2016/09/27  
Osoko Bilkura  
Pleno ordinario



1.- INFORME REPAROS al reconocimiento de obligaciones por falta de justificación de fondos librados “a justificar” (FALTAN FACTURAS O ALGUNAS NO SON CONFORMES)

(Anticipio de caja concedido al área de cultura, nº 3 de 2016)

2.- INFORME REPAROS al reconocimiento de obligaciones por falta de justificación de fondos librados “a justificar” (FALTAN FACTURAS O ALGUNAS NO SON CONFORMES)

(Anticipio de caja concedido al área de cultura, nº 4 de 2016).

3.- INFORME REPAROS a la Resolución Nº 655 sobre reconocimiento de bonificación a los propietarios de viviendas y locales de Santa Ana 1 y 2 en la Tasa por Ocupación del dominio público.

(La bonificación concedida no tiene amparo normativo)

4.- INFORME REPAROS a la Resolución Nº 657 sobre reconocimiento de bonificación en IVTM a Florentina Davila Cristina.

(La bonificación concedida no tiene amparo normativo)

El Pleno, con la asistencia de 10 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

## **5º.- ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE “BERSO ESKOLA”.**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura, Euskera y Deportes, el pleno, por unanimidad ACUERDA:

**Primero:** Adjudicar a Gipuzkoako Bertsozale Elkarte la prestación del servicio “bertso eskola de Eskoriatza” en las siguientes condiciones:

- **Duración:** El servicio se ofrecerá entre octubre de 2016 y junio de 2017.
- **Precio y plazos de pago:** El coste total del servicio será de 1.908,63 euros (exento de IVA), y los plazos de pago serán los siguientes: el 33% del servicio, esto es, 630,00 €, se abonará en diciembre de 2016, y el 67% restante, esto es, 1.278,63 €, en junio de 2017.
- **Informes:** Junto con cada factura, deberá de presentarse un informe de valoración sobre la bertso eskola. En diciembre, sobre el inicio del curso, donde se detallarán el calendario y horario escolar, número de alumnos de cada grupo y la evaluación de

inicio del curso. En el de junio deberá de presentarse una valoración general del curso, dando cuenta de las actividades corrientes y extraordinarias realizadas.

- **Condiciones técnicas:**

Las personas que se contraten para ofrecer el servicio deberán de conocer bien el mundo del bertsolarismo y tener la suficiente capacidad para dar clases de bertsolarismo. Además, en la medida de lo posible, se priorizará que sean de Eskoriatza o alrededores.

Se crearán dos grupos por edades: uno de adultos y otro de jóvenes.

Los grupos se reunirán como mínimo una hora a la semana, en las semanas especificadas en la oferta de trabajo.

- **Cooperación:** Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak tendrá la ayuda de todos los recursos existentes en Eskoriatza ligados al bertsolarismo, en este caso la de la bertso eskola Hankamotx, ya que en este momento es el único grupo de bertsolarismo de Eskoriatza.

**Segundo:** Aprobar el gasto de 1.908,63 euros correspondiente al precio de este servicio. De esa cantidad, aprobar un gasto de 630,00 euros a cargo a la partida 0400.226.335.00.08 del presupuesto de este año, y el resto, esto es, 1.278,63 € a cargo del presupuesto del 2017.

**Tercero:** Facultar al alcalde para firmar el contrato administrativo entre el Ayuntamiento de Eskoriatza y Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak en base a las condiciones anteriormente citadas.

## **6º.- BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS.**

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

**PRIMERO.-** Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se resumen:

A. Baja de derechos pendientes de cobro **por prescripción:** 220,96 €.

IZENA	KONTZEPTUA	URTEA	LIKIDAZIOA	GUZTIRA	ZERGATIA
BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA	PLUSBALIA	2012	29	220,96	PRESKRIPZIOA
<b>GUZTIRA</b>				<b>220,96</b>	

B. Baja de derechos pendientes de cobro **por improcedencia**: 320,00 €.

URTEA	IZENA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	ZERGATIA
2.015	UTE ESKORIATZA SERVICIOS FORESTALES	Abenduko alkilerria	320,00	Kontabilitateko akatsa
		<b>GUZTIRA</b>	<b>320,00</b>	

**SEGUNDO.-** Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja en las cuentas contables y de recaudación las deudas declaradas prescritas o anuladas por otras causas.

### **7º.- PRÓRROGA DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE “GAZTELEKU”.**

Mediante acuerdo plenario de fecha 23 de setiembre de 2015 se acordó adjudicar a “TXATXILIPURDI” HAUR ETA GAZTE EKINTZAK-AED-ELKARTEA el contrato de GESTIÓN DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS POLIVALENTES DE ADOLESCENCIA (GAZTELEKU) por un precio de 42.000 euros más 0 euros , correspondientes al IVA, y con sujeción al resto de condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como a las especificaciones contenidas en la proposición del contratista. El plazo inicial de duración del contrato era de 1 año.

De acuerdo con la cláusula dos del pliego de cláusulas administrativas particulares, dicho plazo era prorrogable por dos periodos de un año cada . La prórroga debe ser acordada

expresamente de acuerdo con el art. 23.2 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

El Pleno, en fecha 22 de setiembre de 2016, acordó prorrogar el contrato por una año.

Por parte del servicio encargado de la gestión del contrato, se emite dictamen en el que se considera conveniente la prórroga por otro año más del contrato.

Asimismo, consta la conformidad del contratista con la prórroga propuesta.

De acuerdo con al artículo citado, la prórroga la acordará el órgano de contratación, siendo en este caso el Pleno.

De acuerdo con lo anterior, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura, Deportes y Euskera, y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO.-** Prorrogar nuevamente el contrato para la GESTIÓN DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS POLIVALENTES DE ADOLESCENCIA (GAZTELEKU) por un periodo de UN AÑO, de acuerdo con lo establecido en la cláusula dos del pliego y en el art. 23 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público

**SEGUNDO.-** Autorizar y comprometer el gasto correspondiente a la prórroga antedicha por importe de 41.642,98 euros, con cargo a la partida 0400.227.337.60.20 del presupuesto municipal.

#### **8º.- PROPUESTA DE TARIFAS 2017 PARA EL SERVICIO URBANO DE TAXI.**

La asociación AGITAX ha propuesto mantener para 2017 las tarifas del 2016.

Vistas las razones dadas para hacer dicha propuesta y de conformidad con la propuesta elevada por la Comisión Informativa de Hacienda, el Pleno acuerda:

**Primero:** Mantener durante el año 2017 la última tarifa aprobada por este ayuntamiento.

#### **9º.- APROBACIÓN DE LAS BASES PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS PARA EL FOMENTO DEL COMERCIO Y LA HOSTELERÍA.**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Desarrollo Económico Sostenible y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Aprobar inicialmente la **NORMATIVA PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS PARA EL FOMENTO DEL COMERCIO Y LA HOSTELERIA** en Eskoriatza.

**Segundo:** Exponer dichas **NORMATIVA** a información pública por plazo de treinta días para que puedan presentarse reclamaciones y sugerencias que de producirse deberán de ser resueltas por la Corporación. De no producirse éstas, y al amparo de lo previsto en el art. 49.c) de Ley 7/85, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, con la modificación introducida por la Ley 11/1999, de 21 de abril, dicha Normativa se entenderá definitivamente aprobada sin necesidad de nuevo acuerdo.

## **10.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Aitor Zubizarreta cursa las siguientes preguntas:

1.- Número de usuarios de la piscina durante los meses de julio y agosto.

Manifiesta querer conocer el número para valorar si ha sido rentable o no abrir durante más días y horas la piscina.

El Alcalde le responde que le remitirá esa información.

2.- En relación al pliego de cláusulas que rige la contratación de los servicios deportivos, pone en duda la posibilidad de que una misma persona preste simultáneamente el servicio de socorrista y el de monitor de un curso en la piscina.

La secretaria le responde que dará traslado de su pregunta a la asesora deportiva y que, recibida la respuesta, informará sobre ello a todos los corporativos.

3.- En relación también al anterior pliego, pregunta si sería posible modificar el horario que se contempla en el anexo. Y ello, dice, porque igual es conveniente tener la instalación abierta después de las 20:00 horas para que trabajadores, por ejemplo los del comercio, puedan hacer uso.

Se le responde que ese horario es una previsión, que si se considera conveniente el ayuntamiento puede modificarlo en un sentido u otro.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:55 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**